

COVID-19 JARDUTEKO PROTOKOLOA **EAF-FVA TXAPELKETAKO KIROL-PROBAK**

Dokumentu hau EAF-FVA Euskal Txapelketetako probetan hartu beharreko neurrien protokoloa da eta, beraz, nahitaez bete beharrekoa.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kirol Sailek ematen dituzten arauen arabera aldatuko da, gaur esaten duguna beharbada aste batzuen buruan izango den egoerarekin antzik izango ez duela kontuan hartuta.

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- **1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.**
- **Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.**

Inskripzioak

Izena emateko inprimakiarekin batera, parte-hartzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte prozesua arinagoa izan dadin eta, hartara, dokumentazio fisikoarekin kontakturik izan ez dadin egiaztapen administratiboetan:

Pilotua

- Pilotuaren NANaren irudia eta gidabaimena
- Federazio-lizentziaren irudia

Kopilotua (rallyetan eta rallysprintean)

- Kopilotuaren NANaren irudia
- Kopilotuaren federazio-lizentziaren irudia

Ibilgailua (rallyak eta rallysprintak bakarrik)

- Zirkulazio-baimena
- IAT indarrean

Inskripzioaren ordainagiria


Eskatutako dokumenturen bat falta bada, inskripzioa ez da baliozkotzat joko.

Egiatzapen administratiboak

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

- Antolatzaileak kanpoko eremu bat mugatu beharko du, gutxienez 3x3 m-ko karpa bat paratzeko adinako lekuarekin. Karpak gutxienez 2,5 metroko eremua izan beharko du hesiz edo zintaz markatua (inoiz ez tarteetan erabilitakoa jendea debekatzeko), edozein hankatatik neurtuta.
- Kontrako aldetik sarrera-pasabide bat markatuko da alde batetik eta irteera-pasabide bat bestetik.
- Karparen azpian gehienez ere 2 pertsona egongo dira egiatzapenak egiteko. Horietako batek parte-hartzailearen erregistroa egingo du (dokumentazio guztia bidali duenez, aurretik egiatzatuko dira haren datuak). Bigarren pertsona izango da dortsalak, publizitatea eta gainerako lasterketa-dokumentazioa dituen poltsa parte-hartzaileari emango diona. Bi pertsonek behar diren babesak eduki beharko dituzte (eskularruak, maskara...).
- Parte hartzen duen taldeko pertsona batek baizik ezin izango eremu horretara sartu, **maskara ondo jarrita**. Sartzerakoan **nahitaez** erabili beharko du eskura izango den **gel hidroalkoholikoa**. Dokumentazio guztia eraman beharko du, eskatuz gero erakusteko.
- Prozesua bukatutakoan, parte-hartzaileak kontrako aldeko irteeratik alde egingo du.



Egiatzapen teknikoak

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- **1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.**
- **Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.**

Oso kokaleku zabala bilatu behar da egiaztapen teknikoak egiteko. Ibilgailu bakoitzeko espazioak administrariena bezalakoa izan behar du, EAF-FVAren 3x3 tamainako karpatik (normalean erabiltzen baitira) gutxienez 2,5 m-ko tartea utzita, eta perimetro guztia zintaz balizatuta (inoiz ez publikoa debekatzeko tarteetan erabilitakoa).

Egiaztatzeko kaleek ere 2,5 m-ko tartea utzi beharko dute gutxienez. Gunean behar adinako zabalerarik ez badago, diagonalean jarriko dira bata bestearen aurrean, gutxienez 3 metroko tartea utzita, eta horrela, egiaztatzen ari diren pertsonak ez dira inoiz elkarrengana hurbilduko.

Egiaztapenez arduratzen diren OC ofizialak gehienez ere bi (2) izango dira kotxe bakoitzeko, eta osasun-zerbitzuak ezarritako **segurtasun-neurriak** bete beharko dituzte (**FFP2 maskarak edo kirurgikoak**, nahi dutena, eta eskularruak). Elementu horiek EAF-FVAren furgonetan jarriko dira, behar izanez gero erabiltzeko, baita **gel hidroalkoholikoa** ere, behar adina.

Egiaztapenen eremu osoan, horretarako ezinbestekoak diren ofizialak bakarrik egongo dira. Horiek guztiek babes-material egokia eraman beharko dute eta, ahal den neurrian, segurtasun-tartea gorde.


Beren zeregina bukatutakoan, gunetik alde egin beharko dute.

Horrez gain, parte hartzen duten ibilgailuentzat eremu zabal-zabal bat egongo da, haien arteko segurtasun-tarteak gorde ahal izateko. Ibilgailu bakoitzeko bi (2) pertsona baino gehiago ezin izango dira sartu itzaroteko edo egiaztatzeko eremura. Biek ala biek **maskarak** eraman beharko dituzte beti, **gutxienez kirurgikoak**, eta ibilgailuak **garbi-garbi** aurkeztu beharko dira, hala kanpotik, nola barrutik, batez ere. Ibilgailu batek baldintzak betetzen ez baditu, ez du egiaztatzeko baimenik lortuko.


Ahal dela, motorrak itzalita daudela sartu eta atera behar da egiaztatze-eremutik, ibilgailuak bultzatuz.

Hurrengo bi eskemak adibide gisa erabil daitezke

Egiatzapen teknikoak. 1. eskema



Egiatzapen teknikoak. 2. eskema



Itxitako parkea

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

Irteerako eta iristeko parke itxietan, gutxienez bi (2) metroko tartea utzi beharko da ibilgailuen eta publikoaren artean. Hesiak edo zinta mugatzaileak ondo mugatuko dute tartea (inoiz ez publikoa debekatzeko zinta gorria).

Parte-hartzaileek ahalik eta lasterren utzi beharko dituzte ibilgailuak, eta, haietatik ateratzean, dagozkien babes-maskarak jarri beharko dituzte (**gutxienez bi metroko tartea uztea ezinezkoa bazaie**). Horrez gain, segurtasun-distantzia gorde beharko dute, bai parkeko ofizial arduradunekin, bai gainerako parte-hartzaileekin, parkea uzten duten bitartean.

Lan-parkea (laguntza)

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

Probaren antolatzaileak parte hartzen duten talde guztiak hartzeko moduko laguntza-gune zabal bat prestatu beharko du, haien artean eta parkeko sarrera eta irteerako kaleetan gutxieneko segurtasun-tarteak gordeta.

Nolanahi ere, parte-hartzaileen kopurua probaren erregelamendu partikularrean mugatu beharko da eta, gehienez ere, segurtasun-tarteak betez lan-parkean paratu ahal diren ekipoen gehienez kopurua izango da.

- Parte-hartzaile bakoitzak gutxieneko espazio bat izan beharko du laguntzarako ibilgailua eta lehiaketako ibilgailua paratzeko.
- Taldeen artean behar adina toki egongo da, laguntzako kide bat bere ibilgailuaren ondotik pasatzen denean, bizilagunekiko distantzia inoiz izan ez dadin metro batetik (1) beherakoa.
- Laguntza-gunean, pilotua (eta, hala badagokio, kopilotua) baizik ez da egongo, gehienez ere hiru mekanikarirekin. Guztiek **eraman beharko dute maskara**, gutxienez bi metroko tartea betetzen ez badute eta ibilgailutik kanpo badaude. Pertsona gehiago behar izanez gero, inskripzioa egiten den unean eskatu beharko da eta **EAF-FVA** erakundearen oniritzia beharko da.

Arau horietakoren bat betetzen ez bada, kirol-komisarioei jakinaraziko zaie, eta probatik **KANPORATUKO** da. Beharrezkoa bada, dagokion diziiplina-espedientea irekiko da **EAF-FVA**n.

Atoien aparkalekua

Atoiak aparkatzeko erreserbatutako tokia antolakuntzako kideek antolatu beharko dute, parte-hartzaileak pilatu ez daitezen, segurtasun-tartea gorde ahal izateko.

Irteera-ekitaldiak (rallyak)

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

Jarraitu beharreko eskema irteera-parkearen antzekoa izango litzateke, baina puntu honetan osasun-agintariek tokiko ekitaldietarako ezartzen dutenaren mende gaude oraindik.

Sariak eta trofeoak banatzea

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

Sariak eta trofeoak emateko ekitaldia eremu zabaletan egin beharko da, kanpoan, ahal dela, bertaratutako jendeak segurtasun-tartea gorde ahal izan dezan, eta kanpoko ekitaldi publikoetarako ezarritako neurriak betez.

Sariak eta trofeoak banatzeko eremuan (agertokian), ekitaldia berme guztiekin egin ahal izateko ezinbestekoak diren pertsonak egongo dira bakarrik. Agertokira pilotua eta kopilotua baizik ezin izango dira igo (dagozkien maskarekin), eta pertsona bakar batek emango dizkie trofeoak (maskarekin ere bai), haien artean inolako kontakturik izan gabe. Trofeoak jaso ondoren, gunetik alde egin beharko dute.

Podium scratch unean, hiru taldeak elkarrekin paratu ahal izango dira, baina segurtasun-tartea gorde beharko dute.

Ordutegiaren kontrolak

Ordutegi-kontrolatan sartu aurretik, inguruan aparkatuta itxaroten duten parte-hartzaileak saiatuko dira beste parte-hartzaile batzuekin ez elkartzeko edo, gutxienez, segurtasun-tartea gordetzen.

Ordutegiaren kontrola (CH) dagokien ofizialek osatuko dute, beren osasun-babeserako materialarekin (maskara, gela...). Señaleztatuta eta espazioa mugatuta egongo da, kanpoko inor bertara sar ez dadin.

Zigilatzekeo prozedura eta ibilbideko txartel-mota, printzipioz, berbera izango da, baina beste sistema bat aztertzen ari da, ahal den neurrian, txartelak manipulatzeko saihesteko.

Mendiko helmugak

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

Helmuga igaro ondoren, parte-hartzaileen posizionamendu-sistema orain arte izan den bera izango da, baina, ahal den neurrian, ibilgailuen arteko distantzia handitu beharko da.

Pilotuen arteko ohiko talde txikiak saihestu beharko dira, segurtasun-tartea gordez eta maskara erabiliz.

Ohikoa da eremu horretan jendea ibiltzea, ibilbidetik atera edo ibilbidera iristen dena. Ahalegina egingo da haiekin eragin-trukea modu seguruan izaten, eta ahal dela ez da argazkirik elkarrekin egingo distantzia egokia gorde gabe.

Tarte-irteerak (rallyak eta mendia)

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

Tarte-irteerek kezka pizen dute, eremu horietan jendea metatzen baita. Horregatik, ordutegiaren kontrolari buruzko arauak betetzeaz gain, beste arau batzuk ere erantsi beharko dira:

- Tarte-irteera batean behar diren baliabideak jartzea: kronometrajea, segurtasun-ibilgailuak, gailu sanitarioa, garabia...
- Publikoa jartzeko modua

Irteera-baliabideak

- Kronometratzaileak: Behar den babes-materiala izango dute, maskarez eta gelez hornituta, eta ahal dela haien artean segurtasun-distantzia gordeko dute.
- Lasterketako zuzendaritza edo tarteko burua: Uneoro babes-materiala eramango du eta, ahal den bitartean, segurtasun-tartea gordeko du.
- Kirol-komisarioak: Tarte bakarreko probetan, kirol-komisarioak irteerako eremuan badaude, gainerako langileengandik urrun egon beharko dute, eta osasun-arloko segurtasun-arauak ere errespetatu beharko dituzte.
- R eta S ibilgailuak: Lasterketan ohiko tokia hartuko dute. Bidaiariak ez dira ibilgailu barruan elkarrekin egongo, ezbeharren batera joan behar ez badute, eta ibilgailutik hurbil egongo dira, segurtasun pertsonaleko neurriak hartuta, eta ikusizko eta irrati bidezko komunikazioa izango dute tarteko buruarekin edo D buruarekin.

- Osasun-dispositiboa: Haientzako eremu eskusiboa izango dute, segurtasun-arauak eta barne protokoloak bete ahal izateko.


Publikoa irteeran jartzeko modua

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak


- **1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.**
- **Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.**

- Jendearentzako pasabide bat prestatu beharko da, partaideekiko segurtasun-tartea une oro gordetzeko. Irteerako eta irteera-aurreko karpan, distantzia hori hiru (3) metrora handituko da, eremu horretako ofizialak mugitzeko tartea izan dezan.
- Ez da jendearentzat baimenduko irteera-karpen eta segurtasun-ibilgailuen atzeko aldearen albo osoa.
- Rallyan eta rallysprintean, 000, 00 eta 0 ibilgailuak ez dira irteerako eremura joango lasterketa-ibilbidearen arabera irteera-ordua iritsi arte, lasterketako zuzendaritzak erreklamatzeko ez baditu behintzat. Parte-hartzaileen portaera bera izango dute irteera-lerroko kokapenari dagokionez. Irteera-eremuan egonik geldialdirik gertatuz gero, bidaiariak ibilgailutik jaitsi beharko dute, segurtasun-neurriak hartuta (maskara, distantzia...).
- Osasun-zerbitzuek, garabiak eta irteeran egon behar duten gainerako ibilgailuek gainerako ofizialen segurtasun-arauari jarraituko diete distantziari eta bitartekoei dagokienez.

Mendirako eta rallysprinterako irteera-adibidea



Rally-tarterako irteera-adibidea



Irrati-postuak eta bideko komisarioak

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

- Ibilbideko komisarioekiko briefing-ean eta idatziz ematen diren ohiko jarraibideetan, probarako hartu diren eta beren postuan zuzenean eragiten dieten osasunerako segurtasun-neurriak azaldu beharko dira.
- Ibilbideko komisario guztiei segurtasunerako behar duten materiala eman beharko zaie.
- Ez da inoiz egon behar postutik kanpoko inor.
- Ahal den neurrian, ibilbideko komisarioek, jendea behar bezala paratzen dela zaintzeaz gain, jendea ez pilatzeko beharraz ohartaraziko dute.

Azterketak

Bai rallyetan, bai rallysprintean, ibilgailu berean pilotuak eta kopilotuak joan behar dutenez, ibilgailuetan mugitzeko azterketa-jardunaldietan indarrean dauden osasun-arauak bete beharko dira, bai bidaiari-kopuruari eta -banaketari dagokienez, bai eraman beharreko segurtasun-elementuei dagokienez (maskarak, eskularruak, etab.).

Publikoaren kokapena tarte kronometratuetan

Uneoro eta non-nahi nahitaez bete beharreko neurri orokorrak

- 1,5 m-ko segurtasun-tartea ezin bada mantendu, maskara erabili beharko da nahitaez.
- Higiene-neurriak hartu behar dira, hala nola eskuak urez eta xaboiz garbitzea eta gel hidroalkoholikoak erabiltzea.

Gure probak errepidean egiten ditugunez eta, beraz, beti kanpoan, mendian eta naturan, publikoaren kokapenak ez du arazoa izan behar araudia betetzeko orduan.

Hala ere, antolatzaileak zaindu beharko du pilaketarik gerta ez dadin eta jendea biltzen den puntuetan distantzietan eta maskarak erabiltzeari buruz indarrean den araudia bete dadin.

Donostia, 2020ko ekainaren 1a